



## Pedagogi Erakundea

Mitxel Labegerie 2, 3º Dpt.3  
48005-BILBO  
944153795    www.adarra.org

# JARDUNBIDE INKLUSIBOAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN

Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan askotariko lanak egiten ditugun irakasle talde bat gara, eta duela zenbait urtetatik hona ADARRAN bildu izan gara. Taldea ikasle guztien arrakasta errazten duten jardunbide inklusiboak aztertzeko interesetik sortu zen, bereziki ingurune soziala, kulturala edo ekonomikoa dela eta, egoera zailago batetik abiatzen diren ikasleen kasuan. Ikusten genuen ikasle horien egoera hobetzera bideratutako baliabideen erabilera eta jardunbide askok ez dutela egoera hobetzen (hots, ez dute lortzen ikasleek ikasketak aprobetxamenduz burutzea); aitzitik, aldez aurretik dituzten arazoei bazterketa eta aukera-murrizketa ere gehitzen zaizkie.

Nazioarteko zientzia-komunitateak onetsitako jardunbide eraginkorrak aztertu ondoren, era askotako dokumentuak eta esperientziak aztertu ondoren eta gure eguneroko lanari buruz gogoeta egin ondoren, taldean eskola inklusiboaren printzipioak errealitate bihurtzen dituzten jardunbideak aztertzen ari gara. Dokumentu honetan jardunbide zehatz horietako bat, bi irakasleren lan koordinatua eta aldeberekoa ikasgelan alegia, deskribatzen saiatuko gara, gure ikastetxe batzuetan emaitza onak ematen dituela ikusten ari baikara:



## Dokumentu honek honako helburuak ditu:

- Bi irakasle ikasgelan sistemaren erabilgarritasunaz gogoeta egitea, bai inklusioaren ikuspuntutik, baita eskola-arrakastarenetik ere.
- Antolamendu ereduak proposatzea eta eskaintzea ikastetxeetako giza baliabideak egokiaraz erabili ahal izateko, besteak beste Pedagogia Terapeutikoa (PT), Heziketa Ekin-tza Zehatzetarako Egitasmoa (PIEE), Hizkuntza Indartzeko irakasleak, Errefortzu, Orientazio eta Laguntza Programak (PROA), bikoizketa, praktiketako irakasleak, boluntarioak.

Eskola inklusiboa errealitate bihurtzen duten jardunbide zehatzak:

- Talde interaktiboak
- Banakako tutoretzak
- Ikasteko kontratuak
- Ikastetxek kanpoko laguntza
- Hizketaldi dialogikoak
- Boluntarioak ikasgelan
- Bi irakasle ikasgelan

Gure gogoeta honako printzipio inklusibo hauetan oinarritzen dugu:

- Biztanleria osoak derrigorrezko eskolatzera eta beste hezkuntza-aukera batzuk edukitzeak, berez, ez du bermatzen ikasle guztiak hezkuntzara sarbidea edukitzea: Hori bermatzeko modu bakarra ikasle guztiak ikasketetan arrakasta edukitzea da.
- Gazte guztiak dute eskolak balioesten dituen ikasketa-programetara eta emaitzetara helatzeko eskubidea dute. Hezkuntza berdintzaile eta demokratiko batean ikasle guztiak gero eta gizarte anitzagoan gaituak izaten eta elkarrekin bizitzen ikasi behar dute. Eta hori da horrelako hezkuntza eskaintzeko modu bakarra.
- Ezinbestekoa da ikasle guztientzat itxaropen handiak eta kalitate-maila altuko eskaintza izatea.

- Emaitzarik onenak ikastalde heterogeneoetan lortzen dira, kideen arteko eta helduekiko eragin-trukea bultzatuz.

- Testuinguru guztietan ikasten da, eta ezinbestekoa da testuinguruaren arteko jarraitapena egotea. Ikastetxea testuinguru horietako bat da eta familiarekin, auzoarekin eta abarrekin koordinaturik egon behar da.

- Gaur egungo gizartearen ikas-kuntzaren giltzarria elkarriketa da.

- Ikasle guztiak dute ikastaldeko ikastedenbora guztia partekatzeko eta beren eskola-ordutegi osoa ikaste-denbora izateko eskubidea. Hau da, denbora guztian etengabe ikasten jarduteko eskubidea.

- Ikasleak kideekin eta irakasleekin izaten duen eragin-truke mota oso faktore garrantzitsua da eskola-porrota edo eskola-arrakasta izateko. Eragin-truke positiboak, laguntzakoak, norberaren ahalbideetan eta arrakastan konfiantza ematen dutenak ezinbestekoak dira ikaskuntzarako.

- Ikasle batzuek jarduera jakin batzuk gauzatu ahal izateko ezinbestekoa da ikastetxeak ikastetxek kanpoko laguntza bezala antolatzera; beste ikasle batzuek familieren laguntzarekin gauzatzen dituzte jarduerak. Ikastetxek kanpoko laguntza hori ikasle heterogeneoak hartzeko zenbat eta irekiagoa izan, ikaskuntza instrumentalarik zenbat eta lotuago egon, eta bertan zenbat eta pertsona heldu eta anitz gehiagok parte hartu, handiagoa izango da bere eragina ikasleen eskola-arrakastan.

# BI IRAKASLE IKASGELAN

Ikasgelan bi pertsona heldu daudenean, irakasle bakar batek ikastalde osoa behatu behar duenean nekez erabil daitezkeen metodologia dialogikoak erabil daitezke.

Ikasgelan irakasle bat baino gehiago dagoenean, abagune egokia dugu kideen arteko lankidetzaz-jarduerak eta ikasleen partaidetza aktiboa errazten duten bestelako jarduerak ere pertsona heldu baten gidaritzapean antolatzen. Horrela eragin-trukea biderkatu egiten da, eta, horrekin batera, ikasteko aukerak.

Ikasgelan horrela lan egiten dugunean, **gure proposamenak zenbait eragin onuragarri dituela ikusten dugu**, besteak beste:

- Ikaskuntza akademikoei eta balioen ikaskuntzari lotutako eragin-trukeak ikasleen artean bultzatzeko aukera handiagoak eskaintzen ditu; kideen arteko laguntza-jarduerak, talde lanak, lankidetzalanak eta abar errazago antola daitezke.
- Ikastaldean jarrera pasiboa izaten duten ikasleek parte hartzea errazten du.
- Ikasgelan eragin-truke gehiago gertatzen dira, eta horrek estrategia gehiago erabiltzeko aukera eskaintzen du, hala nola zalantzak argitzeko edo normalean lanik egiten ez duten ikasleak animatzeko.
- Ikasteko arazoak edo elbarritasun fisikoak dituzten ikasleen integrazioa sustatzeko une egoki gehiago egoten dira.
- Ikasgelan gatazka kopurua murriztu egiten da eta ikasleek lan gehiago egiten dute. Arreta gutxiagotan galtzen dute, bi irakasle



batera egoteak lagundu egiten baitie arretalanean jartzen.

- Azalpenak gehiago indibidualizatzen dira. Laguntzeko modua dibertsifikatu egiten da (irakasle bakoitzak bere estiloa du, ikasle batzuei errazago heltzen zaiena beste batzuei baino; ikasleek ere elkarri laguntzen diote).
- Banakako zalantzak errazago eta arinago argitzen dira.
- Ikasgelan zer gertatzen den hobeto kontrolatzen da eta ikasleen beharretara aiseago molda gaitezke. Irakasleek errazago jakin dezakete ikasleek zer ikasten duten, zer zalantza daukaten eta, hala behar denean, jarduerak nola moldatu behar diren.
- Jardunbidea hobetzeko, ikasgela barneko arazoak aztertzeko eta bideratzeko bi ikuspuntu ezberdin daude. Elkarrekin gogoeta egitea eta talde-lan profesionala egitea.
- Bi irakasleek elkarrengandik ikasten dute, nork bere ezagupenak eskaintzen baititu.
- Banakako tutoretzaren antolamendua errazten du, kasuak bakoitzaren nahien arabera bana daitezkeelarik.
- Irakasleen eta ikasleen artean konfiantza eta komunikazio-giroa areagotu egiten da.

Gainera, ikastetxeko baliabideak ikasgelan bi irakasle batera maiz egon ahal izan daitezkeen antolatzen badira, talde interaktiboetan saio gehiago antolatu ahal izango dira. **Esperientziak erakutsi digu, ikasle guztien ikaskuntza lortzeko, emaitzarik onenak ematen dituen jardunbidea talde interaktiboak direla.**

# METODOLOGIA ALDERDIAK

Ikasgelako aniztasuna ikaskuntzaren elementu garrantzitsua da, eta hobeto baliatzen da ikasleen arteko eragin-trukea sustatzen bi irakaslek batera jarduten dutenean.

Ikasgelan pertsona heldu bat baino gehiago dagoenean, jarduerarik emankorrenak ikasleek elkarrizketaren bidez gauzatu behar dituzten bikotekako edo taldekako lanak dira, hots, kideen arteko eragin-trukea sortzeko aukerarik gehien eskaintzen duten jarduerak. Komenigarria da ikastalde osorako azalpenak irakasleak ikasgelan laguntzarik ez dueneko saioetarako uztea. Hala ere, horrelako saioak noizean behin bi irakasle daudenean ere egin daitezke: irakasle batek azalpena egiten duen bitartean, besteak ikastaldean zer gertatzen den behatzen du (ikasleek arreta galtzen duten, ondo ulertzen duten...).

Horrez gain, arloen arteko lana ere errazten du. Adibidez, irakasle bat Gaztelaniakoa bada eta bestea Gizarte Zientzietakoa, hizkuntza aroan jorrotutako prozedurak Gizarte Zientzietako testuekin landu daitezke.

Oro har, batez ere bikotekako edo taldekako lanak antolatuko ditugu. Gainera, taldeak homogeenak izango dira beti. Hona hemen gauzatu daitezkeen **jarduera batzuk**:

- Normalean ikasgelan bakarka egiten diren lanak edo etxerako lan bezala egiten direnak (ariketak, problemen ebazpena, testuak binaka edo taldeka irakurri eta komentatu...) talde-lan bezala antolatu.
- Talde-lana proiektuen bidez.



- Literatura hizketaldiak, hizketaldi dialogikoak.
- Ikaskuntza kooperatiboa.
- Laborategiko praktikak, ikerlanak, tailerrak...


Talde-lanak antolatzen ditugunean, kontutan hartu beharreko da taldeek hobeto lan egiten dutela pertsona heldu batek guztien partaidetza bultzatzen duenean eta elkarri laguntzera eta azalpenak ematera animatzen ditugunean. Horrelako egoerak, gainera, oso lagungarriak dira ikasleek talde-lanerako behar diren lankidetzatza-trebeziak eskura ditzaten.

Ikasgelako bi irakasleen lana ahalik gehien aprobetxatzeko, bakarkako eta taldekako lana konbinatzen dituen ondoko formula hau erabil daiteke:

Adibidez: ordubeteko saio batean hiru lan-talde antolatzen dira hiru jarduera ezberdinekin. Bi jarduera irakasle baten gidaritzapean egingo dira, eta hirugarrena ikasleek bakarrik egingo dute. Taldeak txandakatu egingo dira: hiru taldeek hiru jarduerak gauzatu dituzte. Irakasle bakoitzak jarduera bat dinamizatuko du, hasieran talde batekin, gero beste batekin eta azkenik hirugarrenarekin. Lehen jarduera bukatutakoan, taldeak txandakatzen dira. Bakarrik zegoen taldea orain irakasle batekin egongo da, beste talde bat bigarren irakaslearekin egongo da, eta hirugarren taldea bakarrik geratuko da.

Ikasleak taldekatzerakoan, ahalik eta talde homogeneoenak egiten saiatu behar dugu.

Ondoko irudia lagungarria izan daiteke proposamena ulertzeko. Diagrama bakoitza hiru saioetako bati dagokio.



Horrelako jardueretan irakaslearen betebeharra ez da azalpenak ematea, eragin-trukeak sustatzea baizik, ikasleek elkarri azalpenak eman eta lana egiten elkarri lagun diezaioten.

# ANTOLAMENDU ALDERDIAK

## Baliabideen antolamendua

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek ordu kopuru eta giza baliabide ezberdinak izaten dituzte ikasleen aniztasunari erantzun ahal izateko, hala nola:

- > Bikoizketa orduak DBHn.
- > Hezkuntza Sailaren deialdi jakin batzuei dagozkien ordu gehigarriak, adibidez Heziketa Ekintza Zehatzetarako Egitasmoak.
- > Pedagogia Terapeutikoko irakasleak.
- > Hizkuntza Indartzeko irakasleak.

Halaber, badira beste giza baliabide batzuk (dinamizatzaile kulturalak, proiektuen koordinatzaileak, orientatzaileak, Zuzendaritzari laguntzeko irakasleak, arrazoi ezberdinetatik ordutegi murrizpena duten irakasleak, curriculum aniztasuneko irakasleak...), ikasgelan irakasleen laguntzaile gisa jardun dezaketenak.

Ikastetxeak autonomia osoa du baliabide horiek ikasgelako bi irakasle egotearen metodologia erabiltzera bideratzeko, betiere kontuan izanik ikastetxeko baliabide guztiak ahalik eta ikaslerik gehienek erabili behar dituztela.

Esperientzia antolatzeko zuzendaritza taldeak beste alderdi batzuk ere hartu behar ditu kontuan, besteak beste:

- Ordutegiak antolatu ikasgelan bi irakaslek batera lan egin ahal izan dezaten.
- Ikasgelan batera lan egiten duten irakasleen koordinazioa erraztu.
- Ikastetxean abian dauden proiektuak (PIEE, PROA...) eraginkortasunez kudeatu.

## Irakasleen antolamendua

Ikasgelan batera irakasten duten irakasleen lana modu askotan antola daiteke, bakoitzak hartzen duen betebeharraren arabera. Funtsean hiru antolamendu modu bereiztuko ditugu:

- 1) Arloko irakasle bat eta irakasle espezializatuago bat.
- 2) Arlo bereko bi irakaslek ikastaldea partekatzen dute.
- 3) Arloko irakasle bat eta errefortzuko beste irakasle bat.

Hiru aukeretan oso garrantzitsua da ikasgelan nolako lana egingo den eta eragintzeak nola bultzatuko diren erabakitzea, eta horrekin batera beste aspektu batzuk argitzea, hala nola irakasle bakoitzaren betebeharra, ikasleak nola taldekatu (bakarka, binaka, hiruak, taldeka...), ikasle etorkinekin eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin nola lan egin, eta abar.

### 1.- Arloko irakasle bat eta irakasle “espezializatuago” bat.

PT, PRL edo antzeko irakasleek beren lan osoa ikasgela barruan egin dezakete, ikasleen eta ikastaldearen ezaugarriak kontuan izanik aurretiaz erabakitako arloetan. Irakasle horiek ikasgela barruan laguntzaile gisa egiten duten lanak **abantaila batzuk** ditu:

- Espezialista horiek ikasgelan egiten duten lanaren etekina ikasle guztientzat da.
- Ikasleek denbora gutzia ikasteko erabiltzen

dute eta jarduerak ikaskide adituagoekin partekatzen dituzte.

- Arloko irakaslearen lana erraztu egiten da. Gainera, irakasle laguntzailearen esparruko lanaren berezitasunak ikasten ditu, eta, beste alde batetik, bakarkako laguntza handiagoa eskaini diezaieke ikasle guztiei.
- Integrazioa errazten du, eta ikasle guztien arteko harremanak hobetzen ditu.
- Arloko irakaslearen eta espezialisten arteko lanikidetzak errazten ditu.
- Maila anitzetako jarduerak diseinatzeko aukera eskaintzen du, hezkuntza premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen parte hartzea errazteko.
- Koordinazio txikia eskatzen du, arloaren antolamendua arloko irakaslearen ardura baita.

Hala eta guztiz ere, abantaila horiek guztiak baliatu ahal izateko, alde zurreratik hainbat alderdi finkatu behar dira, hala nola HPB duten ikasleen jarraipenaren antolamendua eta irakasle espezialistaren betebeharrak (aholkularitza, koordinazioa, baliabideak, metodologia, ikasleak talde txikietan behatzea...).

## **2.- Arlo bereko bi irakaslek ikastaldea partekatzen dute.**

Sistema honekin arlo ezberdinen arteko jarduerak erraz planteatu daitezke, irakasleak irakasgai ezberdinetako espezialistak direnean, eta horrela ikaskuntzari zentzu handiagoa ematen zaio. Irakasleek arloaren inguruan egiten dituzten azalpenen aniztasuna handiagoa izango

da. Sistema hau bikoizketa baino interesgarriagoa da, bi irakaslek ikastalde osoarekin ikasleen aniztasun osoa baitute arestian deskribatu diren proposamen metodologikoak planteatzeko. Bikoizketetan sarritan irakasleak talde handian aurkitzen dituen zailtasun guztiak izaten dituzte talde txikian eta ikasle guztiei arreta emateko aukera urria izaten da.

Hala eta guztiz ere, sistema honek, bi irakasleen arteko harreman onak eta bien ordutegia bateratzeko ahaleginaz gain, lanetan banaketa oso zehatza eta planifikazio bateratua eskatzen du (irakasle bakoitzak zein ikasle behatuko dituen, gaiak eta jarduerak, azalpenak nola eman, zuzenketak nola egin, lanak bukatu ezean zer egin...). Horrekin batera oso garrantzitsua da saioaren denbora-banaketa (azalpen orokorrak, jarduerak bakoitzerako denbora) eta ebaluazioa (nolako probak eta azterketak, nori zuzendu) egoki antolatzea.



## **3.- Arloko irakasle bat eta errefortzuko beste irakasle bat (laguntzailea).**

Arloko irakasleak irakasgaia antolatzen du, eta ordu-kreditua duen irakasleak, arloa edozein delarik ere, laguntzaile gisa jarduten du ikasgela barruan alde zurreratik finkatutako betebeharrak. Bi irakasleek nahi duten bezala bana dezakete beren ordutegia, adibidez, ikastalde batzuetan batek arloko irakasle gisa jarduten du eta besteak laguntzaile gisa, eta beste ikastalde batzuetan alderantziz. Biek batera arloko irakasle gisa jarduten dutenean eta batek beti arloko irakasle gisa eta besteak beti laguntzaile gisa jarduten dutenean sortzen diren arazo gehienak konpon daitezke modu horretan.

Antolamendurik errazena betebeharrak banatzea da, hots, irakasle batek arloko

irakasle gisa jarduten du, eta besteak laguntzaile gisa, betebeharrak oso argiak baitira, eta koordinazio gutxi behar baita. Arloko irakasleak ikasgelako jarduerak antolatzen ditu eta laguntzaileak lagundu egiten du ikastalde osorako azalpenetan eta ikasleak bikoteka edo talde txikietan lan egiten dutenean:

- Lan-taldeak dinamizatzen ditu, eta binakako lanean daudenean zalantzak argitzen lagun dezake (horretarako ez da arloko espezialista izan behar, ikastalde osorako azalpenak eman direnean bertan egon baita).
- Arloko irakasleak ikastalde osorako azalpenak ematen dituen bitartean, ikasle guztiak adi egon daitezen arduratzen da, eta motibazio faltak hala eskatzen duenean, liburuak ateratzen eta beren lekuan egoten lagun diezaieke ikasleei.

- Arloko irakasleari hainbat alderdi ikusten laguntzen dio, adibidez, zein jarduera ez den ongi atera, zein edo zenbat ikasle ez duen kontzeptu jakin bat ulertu...
- Ikasleren batekin arazorik sortzen bada, bere arreta osoa eskaini diezaiotke ikasle horri ikastaldearen dinamika apurtu gabe.
- Komunikaziorako bide egokia izan daiteke, ikasleek irakasle laguntzailea beste modu batean ikusten dutelako. Gauza askotarako berarekin konfiantza handiagoa izaten dute arloko irakaslearekin baino, eta hori oso lagungarria da ikastaldean zer gertatzen den jakiteko.

## ONDORIOA

Adarrako Bigarren Hezkuntza taldean, proposamen horiek abian jarri ditugunean, emaitzak eta ikasleen arteko harremanak hobeak izan direla egiaztatu dugu. Neskek eta mutilik ikasteko interes handiagoa erakusten dute, eta gure ikuspegi profesionaletik hori oso pozgarria da. Horrez gain, lan egiteko modu horrek irakaslanaren beste ikusmira bat eskaintzen

digu eta baita familiekiko harremana hobetzeko informazioa eta baliabideak ere. Ildo horretan ikertzen jarraitu nahi dugu, eta zuen iradokizunak edo esperientziak guri bidaltzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

Bilbo, 2010eko apirilaren 6a

**Guztión Eskola eta  
Bigarren Hezkuntza Taldea**

Adarra Pedagogi Erakundea  
adarraerakundea@gmail.com